



ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pistia

Zer xabillagu/xabiñagu?

Julen: Zer, bahator gurekin Lekeitiora, antzar egunera?

Dany: Baxakuat asmua!

Julen: Ba, "burdixa" Manuk ifiñi bihar xok eta, orduan, hirekin lau izango gaittuk: Manu, Fredy eta gu bixok.

Dany: Ondo xagok. Zer ordutan urtengo xuagu?

Julen: Goizeko 10:00etan Txaketueneko bidekurtzian.

Dany: Konforme, han egongo nauk!

Julen: Ordurako egon hadi, e! Bestela, **hanka egingo dostagu**, heuk ikusi!



Goguan hartzeak

ASTEKO EGUNEN IZENAK

Astelehen, martizen, eguazten, eguen, egubakoitz, zapatu, domeka mugabagian.

Astelehena, martizena, eguaztena, eguena, egubakoitza, zapatua eta domekia mugatu singularrian. Adb.:

A.- Zer egun da gaur?

B.- Gaur, **astelehena** egun danian!

A.- Bixar, orduan, **martizena**; etzi **eguaztena** eta etzilimo **eguena**. Eta atzo zer egun izan zan?

B.- Atzo, **domekia**.

A.- Hereñegun, orduan, **zapatua** eta hereñeguntxo, **egubakoitza**. Eta noiz urteten dozue, ba, bakaziñotan?

B.- **Bixar zortzi!** Eta zuek?

A.- **Gaur hamabost!**

B.- Orduan, **eguen illunkaran** pintxo-poteuan ikusiko gara.

Hutsuniak bete

- Hau etxat gustaitten; bestiori be ez... Ezta bapebe jaten. Oso da.
- Eruan egizu poltsia kontuz, bestela fruta dana egingo da-ta.
- Burrukia egon da bart kalia. Ukabilkada batekin apurtu xau batak bestiari.
- Bakaziñotan urten bihar dogula-ta, gure umiak dabiltz.
- Eztozu pakerik emungo gura dozuna egin arte. zara gero!

Aukerak: Aidaatuta / Turtikiña / Maspilddu / Kiliña / Matraillazurra

Beste modu batera esan

- Dudan egon
- Ardura barik ibilli
- Lotsabagia
- Hotza igarten hasi (destenplau)
- Odolbagia

Aukerak: giza-narrua / ezbaiko egon / mengela / hozkilddu / firin-faran ibilli

EUSKERAZ EGOGI

(*') 'Zapatillak jantzi naiz. Mosua pinttau naiz'

Gaztelaniazko esaldi bihurkari (erreflexibo) batzuk euskeraz NOR erako aditzekin egitten dira. Adibidez:

- *Me he vestido: jantzi naiz.*
- *Me he pintado: pinttau naiz.*
- *Me he ensuciado: zikinddu naiz.*

Baiña argi! Esaldi horreik osagarri zuzena (konplemento direktua) dakoñian, aditzak NOR-NORK erakua izan bihar dau, nahiz eta gaztelaniaz aurrekuaren egittura bera izan. Adibidez:

- *Me he puesto las zapatillas: zapatillak jantzi dittut.*
- *Me he pintado la cara: mosua pinttau dot.*
- *Me he ensuciado los pantalones: frakak zikinddu dittut.*

ERANTZUNAK

Hutsuniak bete

1. kiliña / 2. maspilddu / 3. matraillazurra / 4. aidaatuta / 5. turtikiña

Beste modu batera esan

1. Ezbaiko egon

2. Firin-faran ibilli

3. Giza-narrua

4. Hozkilddu

5. Mengela